

IZENDAPENA

AYUNTAMIENTO DE VILLAVA
SERVICIO DE CULTURA
ATARRABIAKO UDALA
KULTURA ZERBITZUA

23 AGO. 2011

ENTRADA / SARRERA

Etortzeko keinua egin zion. Berehala izango zela erantzun zion berak, ezer esan gabe, irri eta begirada garbi batekin.

Momentu hartan hango guztiek Mariarekin sentitzen zuten lilura bera nabaritu zuen... beste behin. Emakume hori azaldu zenetik horrela zen: jendea amen batean bereganatzen zuen, eta betiko. Denetarako prest, guztientzako lagun, argia eta baikorra... Maria, inoiz egindako fitxaketarik onena litzateke, han fitxaketak edo horrelakoak egingo balituzkete.

Horretaz hitz egin nahi zion, hain zuzen ere. Bazetorren urteroko *Boluntarioen Eguna*, eta batzordeak, berak proposatuta gainera, Maria *urteko boluntarioaren* izendapena eskuratzeko aurkeztea erabaki zuen.

-Kaixo, Maria, etortzean agurtu ere ez zaitudala egin, barkatu.

-Bueno, faborez, Iker. Zer duzu?

Aipamena lortzeko aurkezte hura, egia esan, formalismo hutsa zen. Delako *Eguna* hori ospatzen hasi zenean, urtero hiriko elkarte bat saritzea adostu zuten, bertako pertsona baten lana nabarmenduz. Beraz, sari bat baino gehiago, elkarteen jarduera ezagutarazteko aukera polita zen, aurpegi eta bizipen bat erakutsiz. Urtero bat, eta hartan beraiena.

-Zurekin pixka bat hitz egin nahi nuen... eta orain daukagun istorio batean katramilatu.

-Oso ongi, Iker, esan.

Berriz ere irri eta begirada liluratzaille haiek. Barruan zeukanaren seinale, noski. Bizitza osoan horrelako pertsona gutxi ezagutzea egokitu zitzaion Ikerri, eta oraindik ez zen ohitu egiten.

-Ez, esan zuk. Zer moduz zaude hemen, gurekin?

Hemen, gurekin, hau da: *Guztion Etxea* elkartean. *Etxeak* hogeita hamar urte betetzen zituen orduan, alajaina (izena bera garai haietako adierazlea zen). Auzoak sortuta, auzoan azaltzen ziren beharrei berehalako erantzunak emateko asmoarekin. Hasieran urbanismo kontuak ziren: plaza publikoak aldarrikatu, parkeak, zaharrentzako esparruak... Geroago gehienbat eskolaratzearen eta trafikoaren inguruko eskakizunek hartu zituzten elkartearen indarrak. Arazoak aldatuz joan ziren beti, auzoa bezala. Azken bolada honetan, bost urteotan behintzat, oso pertsona zehatz batzuen premiez jarduten

zuten han. Horregatik, agian, *betiko* auzokideek *Etxea* ez zeukaten orain hain beraiena; *Guztion Etxea*, nolabait, Gu-ez-garen-beste-batzuen Etxetzat jotzen zuten. Eta horregatik, Maria bezalako boluntarioak zeruko oparia ziren elkartea bide onetik eramane nahi zutenentzat (bide ona, kasu honetan, txoko gastronomikoa bihurtzera eramaten ez zuena zen).

-Nola nagoen? Zer dugu, ebaluazio bat, ala?

-Ez! Bueno, inoiz egiten ez dizudan galdera da, eta noizean behin egin beharko nizukeena... zure egoeraz interesatu, bederen. Esan, Maria, zer moduz zaude hemen?

-Pozik, Iker. Oso pozik nago. Eskertzen dizut galdetzea, baina ez da behar. Badakizu, gustura, zoriontsu nabil hemen.

-Bai, eta ikusten da. Jendea ere oso kontent dago zurekin. Lan izugarri polita egiten ari zara.

-...ari gara.

Elkartearen orduko jarduerak batez ere paperik gabekoei, bizileku finkorik ez zutenei eta urritasunean bizi ziren familiei zuzenduta zeuden. Askorentzat lan mota hori (jende hori, agian) ez zen auzoak behar zuena, eta kideak alde egiten hasi ziren... haietako batzuk lehenengo garaietatik zeuden. Oso batzorde bitxiak zuzentzen zuen elkartea orain: Maddi eta Roke, borrokalari nekaezinak (geratzen ez diren horietakoak: beren nekea inoren kontra edo ezeren kontra ez borrokatzea litzateke), Lucas ("lehenago egindako bekatuak garbitzeko" apuntatu zen abokatu erretiratu), errealista bihurtutako ameslariren bat (Iker bera, adibidez. Egun batean, elkartearen sortze agiriak ikustean, bere amaren izena aurkitu zuen), eta Lupe, auzo osoa bere komentua zuen moja sailkaezina...

-Ba bai, zerbaitean ari gara. Begira, eta hau da sartu nahi zaitugun saltsa: aurtengo *Boluntarioaren Egunean* hemen egiten duguna aldarrikatu nahi dugu. Badakizu zertaz ari naizen, ez? Iaz zu ere egon zinen.

-Bai, egon nintzen, GKE eta hiriko elkarteen jai hura bada behintzat.

-Horixe. Ba... festa horretan *urteko boluntarioa* izendatzen da, eta...

Biak irri alai berberean elkartu ziren. Iker oso urduri zegoen (zergatik ote?), eta etenaldi txiki bat egin zuen irribarrearen tentsioa askatu eta arnas hartzeko.

-*Urteko boluntarioa* izeneko aipamen edo saria ematen da, eta aurten guk hartuko dugu.

-Oso ongi.

-Gauza da izendapen hori pertsona jakin bati eman behar zaiola, eta ez elkarteari... eta hortxe behar zaitugu.

-Bueno, Iker. Ni? Zer burutazio da hori?

Ondo pentsatuta zegoen, ordea. Elkartea denbora latzak jasaten ari zen. Hirian izandako aldaketak gorabehera, oraindik bizirik irauten zuen (bere garaietatik eta bere espeziean geratzen zen bakarra, ziurrenik), baina ahulduta eta, batez ere, zalantzan jarrita zebilen. Mota guztietako gobernuz kanpoko erakundeen ugaltzeak eta auzoko jende askoren aldentzeak gogor jota zeukaten. Beharrezko dirulaguntzak airean zeuden, Udalak uzten zien lokala erabiltzeko baimena ere bai. Agian, amore emateko momentua heldua zen...

-Ospe pixka bat behar dugu. Merezi du lanean jarraitzea, eta horretarako ezagutu behar gaituzte, eta baloratu. Hortxe sartzen zara zu.

Maria lehenengo egunetik nabarmendu zen: handik pasatzen zirenei oinarritzko gauzak eta trebetasunak irakasteaz gain, gehienen ahokulari, lagun eta babesle zen. Goiz eta arratsalde, nekatu gabe. Bazkaldu ere, hantxe bazkaltzen zuen etxetik ekarritakoarekin (eta *gonbidatuekin*, gehienetan). Beti asmatzen omen zuen, gainera: entretenitza jendearen premia ere badela guztiei gogoratu zienean, edo norberak bere arropa garbitzeko aukera izan zezan bi garbigailu enkargatu zituenean, adibidez. Bazekien arazoak bideratzen, edo nola bideratu galdetzen. Eta, noski, han egiten zenak irautea merezi zuela bazekien.

-Ba, tamalez, horretarako ez dut balio. Uste dut ezin didatela niri saririk edo aipamenik eman.

-Begira, ez naiz hasiko sermoirik ematen, apaltasunaz eta apalkeriaz... Nola esan? Ez da gai pertsonala, marketin baizik. Egunkarian azalduko zara, elkarrizketa atsegin bat egingo dizute, hemen egiten duguna aterako da. Zure kasua jendearentzat deigarria izango da, eta zure bidez...

-Bai, bai, ulertzen dut. Amua izatea eskatzen didazu. Horregatik esaten dizut: ezin didate niri eman. Zuk ere ez zenidake emango... Eta esaten dizudana ez da gai pertsonala, marketin kontua baizik.

-Ulertzen ez duena ni naiz, orduan...

-Ez. Gauza da ez dakizula.

-Zer jakin beharko nuke, ba?

-Ba... zer naizen, edo zer egiten ari naizen, edo zein egoeran nagoen. Hori da ez dakizuna.

Jakin? Ikerrek momentu hartan batez ere ez zekien zer pentsatu: adarra jotzen ari al zitzaien? Ala, zer?, ustekabeen amildegi ezezagun baten ertzean al zegoen? Eta zergatik berriz ere urduri? Mariarekin ari zen!

-Bueno, Maria. Lau urte hemen, egunero, lanak, pozak eta nahigabeak partekatuz... Jakingo ez dugu ba, nor zaren.

-Zuk esan duzu: hemen. Baina argi dago elkartetik kanpo nor naizen ez dakizuela. Bestela, urteko boluntarioaren kontu hori aipatu ere ez zenidakete egingo.

Ikerrek misterioak eta asmakizunak ez zituen batere gustuko.

-Maria, ez dakit bromatan ari zaren.

-Ez, ez da broma. Benetan ari naiz: inondik ere ez nabil ondo zuek orain nahi duzuenarekin... Eta ez dut misteriotsua geratu nahi. Beraz, eta aurpegian daukazun ezusteko itxura hori alda dezazun ere bai, kontatuko dizut.

Bulegoan sartzeko keinua egin zuen. Ordura arte gela nagusian egon ziren, zutik, txoko batean. Bazegoen jendea. Asteartea zenez, lauzpabost gizon eta neska gazte bat ordenagailuetan zeuden. Ikerrek ematen zuen Excel ikastaro batean ari ziren, horrekin lana aurkitzeko aukera gehiago izateko esperantzan. Irakaslea ez zegoen bitartean taldeko hiruk behintzat Al Jazeera-ren web gunea irekita zeukaten, herriko berriak irakurriz. Beste aldean bi emakume inprimaki batzuk betetzen ari ziren, hiztegi bana eskutan eta ordurako Mariaren falta sumatzen. Handik gutxira, gainera, jende gehiago helduko zen. Bulegoa hitz egiten jarraitzeko leku aproposagoa zen.

-Orain dela lau urte, hemen hasi nintzenean hain zuzen, nire senarra alzheimerren laugarren fasean sartu zen.

-Zure senarra?

-Dementzia aurreratua esaten diote. Gaitzaren azken urrats horretan gaixoa ia ezin da mugitu, eta ohean geratu behar da denbora osoan. Jaten eman eta dena egin behar zaio, noski, eta komunikatzeko gai ez da. Bai, nire senarra. Horrela dago.

-Baina... non daukazu?

-Daukadan? Gure etxean bizi da. Batera bizi gara.

-Etxean? Baina, zu...

-Ni egun osoan ez nago etxean, ezta? Etxe gabekoei eta beste premiak dituztenei laguntzen dien boluntario eredugarriak etxean senarra oso gaixo dauka, eta egun osoan ez dago berarekin...

Mariaren begirada distira galtzen ari zen. Beti lasaitasun garbia transmititzen zuen emakume bizi hura etsipenezko doinuarekin hitz egiten hasia zen. Lasaitasun tristea zen orduan Ikerrek, guztiz harrituta, hautematen zuena.

-Urteak dira alzheimer daukala. Gauzak ahazten zituela kexatzen hasi zenetik gaur arte bide luzea egin du. Orduan txantxetan hartzen genuen gertatzen zitzaienak: "interesatzen zaizunean, zein ongi egiten duzun ez konturatuarena, mutil" esaten nion nik, eta barre egiten genuen. Gero ahazte soil batzuk ez, buru-nahasmenak eta oroimenaren galtze larriak zirela ulertu, eta orduan soilik berarekin nengoela egiten nuen barre: ezkondu ondoren, lehenengo aldiz egin behar nuen negar bakarrik, ezkutatuta, bera nire alboan izan gabe.

Arnasa hartzen zuen bitartean, Mariak begirada maitekorra bota zion Ikerri. Honek eskertu zuen adeitasun seinale hura eta entzuten jarraitzeko prestatu zen.

-Hitz egiteko asaldurak agertu zirenean medikuarenera joan ginen, eta orduan izen madarikatua entzun genuen: alzheimer. Diagnostiko hura, ordea, jaitsiera beldurgarri baten irteteko tiroa besterik ez zen. Oso gaitza ankerra da: osasunari baino esperantzari egiten dio kalte gehiago. Aldapa behera horretan, esan dizudanez, orain dela lau urte azken fasean sartu ginen. Begiratzen dit eta ez nau ikusten, nire ahotsa arrotza du. Aldi oro ezezagun bat naiz senarrarentzat.

-Eta nola egiten duzu zaintzeko?

-Nik? Aizu, ni ez naiz bere zaintzaile, bere emaztea naiz!

-Barkatu. Baina ez dakit gehiago galdetu behar dudan, eta askoz gutxiago ere ondo galdetzen dudan.

-Ez, lasai. Eta barkatu zuk. Kontatu behar nizula esan dizut, eta hori egingo. Jakin eta nahi gabe lur sail irristagarrian sartu zara... ea ondo ateratzen garen.

-Hori, jakin eta nahi gabe. Ez dakit zer esan.

-Zer pentsatu ere ez, ezta? Bi zaintzaile ditugu etxean: bata goizez eta bestea arratsalde. Profesionalak dira, eta oso ongi egiten dute ongi ordaintzen zaien lana. Begira, Iker: errealitatetik baztertzen duen gaitza duena nire senarra da, ez ni. Gaixo ez banago,

gaixoaren bizimodua ez dut izango; horrela erabaki nuen medikuak dementzia aurreratua zeukala esan zidanean, eta horrela betetzen ari naiz egun hartatik gaur arte.

-Erabaki zaila, ordea.

-Jakina. Baina ez niri dagokionean. Nik oso argi daukat lehenengo momentutik. Nahiz eta inguruan ditudan guztiei gogorra iruditu, orain, senarra hain gaizki dagoen honetan, beti egin nahi izan dudana egiteko libre sentitzen naiz... eta horretan ari naiz: nahi dudan jardunean, hemen, zuekin. Inori ez diot eskatzen ulertzea, alperrik dela ikasi dudalako. Ez epaitzea ere ez dut espero. Badirudi horrelako gauzetan jende guztiak bere iritzia eta bere epaiketa daukala. Zuri ere, beraz, ulertzea eta onartzea ez dizkizut eskatuko; horrek kezkatzen bazaitu, lasai egon zaitezke.

-Bueno, eskerrik asko aparte uzteagatik.

-Inguruan hori daukat. Seme-alabek, nire ahizpek, lagunek, senarraren familiak... denetik esan didate egun osoan harekin ez egoteagatik. Baina harritzekoa da: hainbeste gaitzespen entzunda, barrutik guztiz seguru, baketsu eta lasai nago... Ulertuko duzunez, gogorrena seme-alabena da, baina hori nahiko azkar gainditu nuen: sartu zizkidaten zalantza-arrastoak berehala garbitu ziren senarra eta aita gauza berbera ez dela erantzun zidatenean.

-Eta orain, zer esaten dizute?

-Ezer ez. Gure arteko harremana erabat moztu zen. Mingarria da oso, baina haiek nahi izan zutelako da, haiek erabakita. Ez ulertzetik ez barkatzera pasatu ziren: beren aita *utzita*, ni hau bezalako elkarte batean aritzea ez didate barkatzen. Osasuntsu eta libre bizi nahi duen ama *uztea* ez omen da hain larria. Bueno, beren haserrea gauza batean behintzat ondo datorkit: haiek ordaintzen dute oso-osorik zaintzaileen lana... norberak bere zintzotasuna defendatzeko bide bat aurkitu behar du.

Lausotuz zihoazen Mariaren begiek gorrotorik gabeko min sakona azaltzen zuten. Iker ohartu zen ahotsa, ordea, irmo eta bizia zuela. Emakume hark ondo zekien zertan ari zen, etsia zegoen lau urte lehenago hartu zuen erabakia erabat zuzena zela. Beste gauza batez ere konturatu zen Iker: oso gaizki sentitzen zen hori guztia entzun behar izateagatik; kontu guztiz nahigabetsu, arraro eta korapilatsua zen berarentzat. Gainera, momentu batean Mariak haren iritzia eskatzen bazion, zer? Nondik atera ez zekienez, elkarriketa mozteko bidea bilatu zuen.

-Hara... bai arazo zailak. Zu horrelakotan egotea... ez nekien eta ez nuen espero. Orain ulertzen dut esan didazuna, aipamen hori zuk ez duzula jaso behar.

-Bueno, nik ez dizut hori esan. Ezin didatela eman uste dudala erantzun dizut. Pentsa: oso latza litzateke zuentzat eta saria ematen dutenentzat handik gutxira etxean zer daukadan zabaldu izatea... eta egunkarian azalduz gero, batek baino gehiagok zabalduko luke, zalantzarik ez eduki. Horregatik kontatu behar nizun.

-Hemen behintzat ez zaitugu epaitu behar, zure bizitza da.

-Halaxe da. Eta hitzematen dizut hemen epaituta ez sentitzeko ahalegin guztiak egingo ditudala, elkartean jarraitu nahi dudalako. Horregatik zerbait gehiago esaten uztea eskatu behar dizut, faborez.

-Esadazu, nola ez ba.

-Honekin ez dut zure onespénik irabazi nahi, ezta nolabait zure aurrean nire irudia garbitu ere. Agian oraintxe bertan arintze txiki bat behar dut, eta horregatik esaten dizut; barkatuko didazu entzunaraztea... Arratsaldero, zortziak aldean, hemendik ateratzen naizenean, etxera noa eta senarra dagoen ohera, gure ohera, sartzen naiz. Bakarrik gaude etxean orduan, eta bakarrik pasatzen dugu gau osoa. Biok gorputzez gorputz gaude, orduak igaro bitartean. Besarkatzen dut, laztantzen, musukatzen, egunean zehar gertatu zaidana kontatzen diot, maite dudala esaten diot belarrira, berak bakarrik entzuteko moduan. Nire bizitzako gizona dut senarra, izugarri maite dut, hark jadanik ez daki nor naizen, baina nik beti gogoan daukat.

Handik aste batzuetara hiriko bi egunkariak *Boluntarioaren Eguna* izeneko festaren berri ematen zuten. Bietako batek, gainera, urteko boluntarioaren izendapena modu berezian ematen zuen aditzera, sarituari egindako elkarrizketa laburra eta guzti. Saria jaso zuen momentuaren irudia ere bazetorren, honako argazki-oinarekin: *Elkarteen Federazioko lehendakaria,ri oroigarri bat emanez.*

P. Nurmi.